«Beste begi batzuekin begiratzeko»

Orhan Pamuk turkiarraren 'Elurra' euskaratu dute Monika Etxebarriak eta Fernando Reyk

Orhan Pamuk iaz, atzealdean Turkiako bandera duela. TOLGA BOZOGLU / EFE

XABIER MARTIN
Donostia

Orhan Pamukek (Istanbul, 1952) eleberri politikoa egin zueneko obra da *Kar*. «Lehena eta azkena», esan zuen egileak argitaratu ondoren. Turkiako egungo idazle ezagunenak, hango hainbat komunitateren etsipenerako iazko Literatura Nobel saria jaso zuenak, «ez du inor axolagabe uzten obra honetan», Monika Etxebarriaren ustez. Hark eta Fernando Reyk *Kar* euskaratu dute, Turkiaren erradiografia soziopolitiko zorrotza egiten duen obra konplexua. Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak Elkarrekin eta Kutxarekin batera sustatzen duen Jokin Zaitegi beka irabazi zuen bikoteak iaz, eta orain plazaratu dute emaitza: *Elurra* (Elkar, 2007), «errealitate asko beste begi batzuekin ikusteko gonbita egiten duen obra», Fernando Reyren irudiko.

Elurra 2001ean argitaratu zuen Orhan Pamukek, eta haren ondotik mehatxuak jaso zituen obran islatzen den Turkiaren irudia medio zela. 2004an, berriz, auzipetu egin zuten, turkiarrek armeniarren aurka egindako genozidioaz hitz egin zuelako. Iaz Nobel saria jaso zuen, eta Turkian ika-mika handia eragin zuen horrek.

«Pamukek beste mundu bat sortu nahi du idaztean». Halaxe dio Etxebarriak. «Historia berria eratu nahi du, egungo errealitatean oinarrituta». Pamukek zortzi eleberri ditu, gehienak historizistak, eta *Elurra* izan zen lehena egungo garaia aztertzen. «Eleberri politikoa egin nahi izan zuen», dio, eta argitaratu ondoren, 200.000 ale saldu zituen Turkian, luze gabe. Baina «lehena eta azkena» izango zela ere esan zuen.

Elurra-k dikotomien mundu oso bat islatzen du, Etxebarriak dioenez, «Mendebaldearen eta Ekialdiaren artean, modernitatearen eta tradizioaren artean», esateraco. Turkiaren ispilu da nobelan elurrak isolatzen duen herriaren mikrokosmosa. Turkia Mendebaldearen eta Ekialdearen arteko nahasketa izan da beti, eta egileak «aberastasun gisa ikusten du hori», bere jaioterrian den ikuspuntu orokorraren aurka. «Han zama gisa ikusten dute hori». Edonola ere, «planteatzen dituen arazoei Pamukek ez die konponbiderik ematen». Ka pertsonaiak, *Elurra*-n narratzaile lanak egiten duen kazetariak, ez du iritzirik, entzun egiten du, betiere jarrera enpatikoarekin. Eta elurra sinbolo irmoa da.

ELUR MALUTA BANAKOAREN SINBOLO. Elur maluta gizakia da Pamukentzat. «Berak ere hala azaldu du inoiz, giza kondizioaren metafora da elur izar hori», dio Etxebarriak. Elur maluta guztiak dira desberdin, eta irakurlea indibidualtasun horrekin identifika daiteke. Gertutik begiratu behar da maluta bakoitza haren desberdintasunaz ohartzeko, eta, gainera, hamar minutu baino ez du irauten desagertu aurretik.

> **«Historia berria eratu nahi du Pamukek idaztean, baina egungo errealitatean oinarrituta»**
>
> MONIKA ETXEBARRIA
> ITZULTZAILEA

> **«Mendebaldeko altueratik begiratzen dugunontzat begi-bihotz berriekin begiratzeko gonbita da»**
>
> FERNANDO REY
> ITZULTZAILEA

Fernando Reyk, «itzulpenaren %50aren arduradunak», *Elurra* «liburu betea» dela dio. «Gai asko jorratzen ditu: pobreen esperantza, indarkeria, fedea, maitasuna, bikoteen harremana, komunikabideen egitekoa, zorionerako bidea... mundu oso bat». Horregatik, itzultzailearen ustez, Pamukek irakurleari gonbita egiten dio «hainbeste aldiz entzun ditugun errealitateak beste begi batzuekin begiratzeko». Askotan aztertu ditugun gaiak «berraztertzeko saioa da, Mendebaldeko altueratik begiratzen dugunontzat begi-bihotz berriekin begiratzeko gonbita».

Elurra-ren euskaratzea bi itzultzailek egin dute, «biren lana izan da, baina benetan erdi bana egin dugu». Prozesuak bederatzi hilabete iraun du, «haurdunaldi bat, eta itzulpenak aita eta ama dauzka». Elurra euskaratzea «erronka handia» zen Reyrentzat, «baina egin dugu, eta bien arteko adiskidetasunari eutsita». Gaztelaniazko, italierazko eta frantsesezko «galbahetatik» pasa dute euskarazko itzulpena;«turkieraz ez dakigulako».

'Euskarazko produktuen katalogoa' atera dute 105 udalek

ERREDAKZIOA
Donostia

Euskarazko produktuen katalogoa-ren hamargaren edizioa argitaratu dute Euskal Herriko Udal eta Mankomunitateetako 105 euskara zerbitzuek. 16 urte bitarteko haur eta gazteentzako 320 produktu bildu dira aurtengo katalogoan, iazkoan baino 50 gehiago. Zortzi atal nagusi ditu gidak: musika, liburuak, aldizkariak, filmak, jostailu eta jokoak, DVD eta informatika produktuak, komikiak eta gurasoentzako produktuak.

Euskal Herri osoan 260.000 ale inguru banatuko dira, iaz baino 15.000 gida gehiago. Urtetik urtera zabalkunde handiagoa du katalogoak. Urtetik urtera produktu gehiago daude merkatuan, baita katalogoan parte hartu nahi duten erakundeak ere. Beste urteetan bezala, Euskal Herri osoko teknikariez osatutako lan talde zabala ibili da katalogoa prestatzen.

Katalogoa kaleratzeaz gain, sarean webgune bat abian jarri dute katalogo berriaren arduradunek, *www.katalogoa.org* helbidean.

Iñaki Zubeldiaren 'Nagadu' ipuina argitaratu du Gero-Mensajerok

ERREDAKZIOA
Bilbo

Iñaki Zubeldiaren *Nagadu* narrazioa da Gero-Mensajero argitaletxeak haur eta gazte literaturaren arloan Durango Azokara eramango dituen liburu berri nagusietako bat. Inuit neskato batek bere bizimoldearen berri ematen du, modu xume eta errazean, eta Maite Gaztelumendik ilustratu du. Bost urtetik gorako irakurleentzat da .

Haur eta gazte literaturako beste lan batzuk ere kaleratu ditu aurten Gero-Mensajerok: Miriam Mendozaren *Jaxinto eta giltza erraldoia*, Maite Gaztelumendik ilustratua, eta Jon Martinen *La Habana*, Mia Charrok ilustratua, adibidez. Peru Abarka lehiaketa irabazi zuten bi egileek, nork bere liburuarekin, 2006an, haurrentzako ipuinen kategorian Mendozak, eta 14 urtetik gorako gaztetxoentzako lanen kategorian Martinek.

Horretaz gain, Kika Supersorgina, Judy Moody, Fairy Oak eta Heidi bildumetako liburu berriak ere eman ditu argitara Gero-Mensajerok, Mari Eli Ituartek, Lurdes Auzmendik, Koldo Bigurik, Ismael Romanek, Sando Sarriak eta Aitor Aranak euskaratuak.